

Elgoibarko Euskal Jaien mendeurrena (1907-2007)

Ane Albisuk “Tradiziozko jantzi eta janzkerak” hitzaldia eskainiko du, hilaren 24an, Elgoibarren (2007/05/18)



Zertarako jantzen gara? Zer eta noiz jantzen dugu? Noiz erabiltzen ditugu gure tradiziozko jantziak? Galdera horiek eta beste zenbait galdera ere erantzuten saiatuko da Ane Albisu, maiatzaren 24an, osteguna, arratsaldeko 19:00etan, Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

* **Atondu, XXI. menderako proposamena**

Ane Albisu Iriarte (Donostia, 1960) 1976. urtean hasi zen euskal jantziak ikertzen. Argia dantzari taldean, Eusko Ikaskuntzako Folklore Sailean; eta azken 21 urteotan, Ikerfolk folklore ikerketa erakundearen folkloerari eta modari lotutako hainbat ikerketa eta lan egin ditu.

Duela zenbait hilabete argitaratutako Atondu, XXI. menderako Proposamena izeneko liburuan jantziari bezainbateko garrantzia ematen dio jantzeari, prestatzeari edo atontzeari. Horretaz gain, Euskal Herriko jantzi tradizionalen ibilbidea ikertu du Ane Albisuk, eta zenbait garaitako diseinuak bildu ditu.

Halaber, tradiziozko jantzi batek gaur eguneko gure gizartean jokatzeko duen rola aztertu nahi izan du liburu horretan.

* **Non, noiz, eta zer jantzi?**

XX. mendean, euskal jantzi tradizionalak izan duen bilakaera oinarritzat hartuta, XXI. menderako proposamenak aurkeztuko dizkigu; eta aldi berean, atontzeak edo prestatzeak berak duen garrantzia ere azpimarratuko ditu. Hau da, noiz zer jantzi beharko genukeen adieraziko digu Ane Albisuk eskainiko digun hitzaldian, egoerari bakoitzari hobekien egokitzen zaion jantzia aukeratzen dezagun.

Hori dela eta, Ane Albisuk egoera bakoitzari egokitzen zaizkion tradiziozko jantzi proposak aukeratzeko eta jantzeko argibideak emango dizkigu. Alde batetik, galdutako iturrietara jo eta ondarea berreskuratuz; eta bestetik, galtzear dauden zenbait ohiturari eutsiz.

Ane Albisuk irudien eta praktikan azalduko jardueran bidez aurkeztuko dizkigu gure tradiziozko jantziak erabiltzeko proposamenak.

Trinitate jaiak hurbil izanik, eta jai horietan baserritar jantziak duten garrantzia ikusirik, antolatzaileek herritarrak dei egin nahi diete hitzaldi horretara joan daitezen.

Elgoibarko Euskal Jaien mendeurrena (1907-2007)

Ane Albisuren hitzaldiak harrera ona izan zuen
(2007/05/28)



Maiatzaren 24an, iluntzeko 7:00etan, gure artean izan genuen Ane Albisu donostiarra. Bera aditua da euskal jantzi tradizioetan, eta berak idatzitako "Atondu" liburuan oinarrituta, hitzaldi-ikastaroa eman zuen Kultur Etxean.

Haritz EDTk Udalarekin batera antolatutako hitzaldi honek harrera ona izan zuen eta herritar asko izan ziren Kultur Etxera etorri eta Ane Albisuren azalpenak arretaz entzun zituztenak. Hitzaldia hasi baino lehen, Haritz EDTko Lurdes Odriozolak Euskal Jaiaren mendeurrenaren berri eman zuen, eta jarraian, Ane Albisuri hitza eman zion.



Hitzaldiaren lehen zatian, euskal tradiziozko jantziaren jatorria azaldu zuen Anek argazkien bidez eta XXI.menderako proposamenak ere eman zituen. Bigarren zatian, berriz, atontzerakoan kontuan hartu beharreko argibideak eman zituen, eta hori nola egiten den ikusteko, hiru dantzarik egin zituzten modelo lanak. Bukatzeko, jantzi eta oihal ezberdinak erakutsi zituen eta bertaratutakoen galderak erantzun zituen. Jendeak jakinmina erakutsi zuen eta galdera-erantzunen atala gaueko 22:00ak arte luzatu zen.

Hitzaldi interesgarria benetan Ane Albisuk Elgoibarren eman zuena.